2.– Agentziako buruari dagokio: bilerak deitu, zuzendu, atzeratu eta bukatzea, Administrazio Kontseiluaren gogoetak epaitzea, bere botoaren bidez berdinketak erabakitzea, eta kanpoko pertsonak Administrazio Kontseiluaren bileretara etortzeko baimentzea, landu beharreko gaiaren izaera dela medio komenigarri irizten badio.

3.– Administrazio Kontseiluak bere kideetako bat kontseiluburuorde izendatuko du, kontseiluburuaren kargua hutsik, edo hura kanpoan edo gaixo dagoenean kontseiluburua ordezkatzeko, bai eta idazkari bat ere, Administrazio Kontseiluko bileren akta egiteko, kontseiluburuaren oniritziarekin sinatzeko, beharrezko egiaztagiriak idazteko eta kontseiluetako idazkariei dagozkien gainerako eginkizunetarako.

4.– Administrazio Kontseiluan abokatu aholkulari bat izan daiteke, ahotsa izango duena, baina botorik ez. Era berean, kontseiluburuak, zuzendariak edo Administrazio Kontseiluko lau kidek hala eskatuta, beste pertsona batzuek ere parte hartu ahalko dute gai jakinei buruzko informazioa edo aholkuak emateko.

5.– Administrazio Kontseiluaren bilerak balioz eratzeko, kontseiluburua eta idazkaria edo horien ordezkoez gainera, kideen erdia eta bat bertaratu behar dira.

Las Universidades que integran el Sistema Universitario Vasco serán informadas de los acuerdos y convenios que puedan surgir de las relaciones e intercambios mencionados.

q) Aprobar el Convenio previsto en el artículo 113 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, para el desarrollo de la evaluación del profesorado de universidades no públicas.

r) Aprobar el contrato programa con el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades y sus modificaciones y adendas si las hubiera, y autorizar a su firma por parte del Director o Directora de la Agencia.

s) Cualesquiera otras funciones que le atribuyan estos Estatutos, el resto de la normativa vigente, así como aquellas funciones que no estén atribuidas expresamente a otros órganos de la Agencia.

***Artículo 11.***– Funcionamiento del Consejo de Administración.

1.– El Consejo de Administración se reunirá, con carácter ordinario, al menos dos veces al año. En cualquier momento, el Consejo de Administración de la Agencia puede reunirse con carácter extraordinario por decisión de su presidente o presidenta, a petición de una cuarta parte de sus miembros o a petición del Director o Directora.

2.– Corresponde al Presidente o Presidenta de la Agencia convocar, presidir, suspender y levantar las reuniones, arbitrar las deliberaciones del Consejo de Administración y decidir los empates con su voto de calidad, así como autorizar la asistencia de otras personas a las reuniones del Consejo de Administración si su presencia se juzga conveniente por la naturaleza de los asuntos a tratar.

3.– El Consejo de Administración nombrará de entre sus miembros un Vicepresidente o una Vicepresidenta, que sustituirá al Presidente o a la Presidenta en caso de su ausencia, vacante o enfermedad, y a un Secretario o una Secretaria que levantará acta de las reuniones del Consejo de Administración y firmará con el visto bueno del Presidente o la Presidenta, emitirá las certificaciones pertinentes y desarrollará el resto de funciones propias de los secretarios de los órganos colegiados.

4.– Podrá asistir al Consejo de Administración un letrado asesor o letrada asesora con voz pero sin voto. Igualmente, a propuesta del Presidente o Presidenta, del Director o Directora o por petición presentada por cuatro miembros del Consejo de Administración, podrán asistir otras personas en calidad de invitados para informar, o asesorar en asuntos concretos.

5.– Las reuniones del Consejo de Administración quedarán válidamente constituidas cuando, además de su Presidente o Presidenta y de su Secretario o Secretaria o quienes les suplan, estén presentes la mitad más uno de sus miembros.

6.– Botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak, estatutuen aldaketa salbu, horretarako kontseiluko kideen bi herenen berariazko akordioa beharko baita.

7.– Ezin izango da baliozko akordiorik hartu gaizerrendan sartu ez diren gai berriei buruz, baldin eta bileran kontseiluko kide guztiak ez badaude eta gaiaren premiazkotasuna erabaki ez bada, gehiengoaren aldeko botoz.

8.– Administrazio Kontseilua Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean aritu daiteke. Batzorde Iraunkorrak honako kide hauek izango ditu: kontseiluburua, kontseiluburuordea, idazkaria, Agentziako zuzendaria eta Kontseiluak bere kideen artean hautatutako beste hiru pertsona. Batzorde Iraunkorrak estatutuon 10. artikuluko i), m) eta o) letretan jasotako eginkizunak izango ditu, baita Administrazio Kontseiluak berariaz eskuordetzen dizkion beste guztiak ere.

Administrazio Kontseiluak erabakiko du Batzorde Iraunkorraren bileren maiztasuna, eta Batzorde Iraunkorrak, era berean, bere jardueren berri emango dio Kontseiluari, aldiro.

9.– Estatutuok edo Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak aurrez ikusi ez dituzten gaietarako, men egingo zaio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, xedatutakoari.

***12. artikulua.***– Administrazio Kontseiluko burua.

Aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, kontseiluburuari dagozkio:

a) Agentziaren erakunde-ordezkaritza; nolanahi ere, zuzendariaren esku utz dezake eginkizun hori.

b) Agentziaren jardunari buruzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari.

c) Agentziaren helburu, xede eta eginkizunak betetzen direla begiratzea.

d) Administrazio-kontseiluak eskuordetutako eginkizun oro.

***13. artikulua.***– Agentziako zuzendaria.

1.– Zuzendariari dagokio Agentzia zuzentzea. Administrazio Kontseiluak izendatuko du, kontseiluburuak proposatuta, sei urteko aldirako. Aldi hori behin luza daiteke.

2.– Agentziako zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoko, Espainiako edo nazioarteko unibertsitatesistemetako aditua izan behar du, eta unibertsitateko katedradun edo irakasle osoaren maila izan behar

6.– Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos, salvo la modificación de los Estatutos que requerirá el acuerdo expreso de las dos terceras partes de los miembros del Consejo de Administración.

7.– No se podrán tomar acuerdos válidos respecto de los nuevos asuntos no incluidos en el orden del día, salvo que en la reunión estén presentes todos los miembros del Consejo y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

8.– El Consejo de Administración puede actuar en Pleno o en Comisión Permanente. La Comisión Permanente estará compuesta por el Presidente o Presidenta, el Vicepresidente o Vicepresidenta, el Secretario o Secretaria, el Director o Directora de la Agencia, y tres miembros elegidos por el Consejo entre el resto de sus miembros. Las funciones de la Comisión Permanente serán las recogidas en las letras i), m) y o) del artículo 10 de estos Estatutos y cuantas otras delegue expresamente el Consejo de Administración en ella.

La Comisión Permanente se reunirá con la periodicidad que determine el Consejo de Administración e, igualmente, informará periódicamente de sus actividades al Consejo.

9.– En lo no previsto en los presentes Estatutos o en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se estará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 12.***– La Presidenta o Presidente del Consejo de Administración.

Además de lo dispuesto en el artículo anterior, corresponde a la Presidenta o Presidente del Consejo de Administración:

a) Ejercer la representación institucional de la Agencia, pudiendo delegar esta función en el Director o Directora.

b) Informar al Gobierno Vasco y al Parlamento Vasco sobre la actividad de la Agencia.

c) Velar por el cumplimiento de los objetivos, fines y funciones de la Agencia.

d) Asumir cuantas funciones le delegue el Consejo de Administración.

***Artículo 13***.– La Directora o el Director.

1.– El Director o la Directora ejerce la dirección de la misma. El Director o la Directora es nombrado por el Consejo de Administración, a propuesta de su Presidente o Presidenta, por un periodo de seis años, prorrogable por una vez.

2.– El Director o Directora de la Agencia será nombrado entre expertos o expertas del sistema universitario vasco, español o internacional con categoría de Catedrático o Catedrática de Universidad, Profe-

du, edo nazioartean antzekotzat jotzen den maila. Orobat, hemezortzi urteko eskarmentua egiaztatu beharko du, gutxienez ere, unibertsitateko ikerketa-, ebaluazio- edo kudeaketa-lanean.

3.– Hauek dira zuzendariaren eginkizunak:

a) Administrazio Kontseiluaren eta Batzorde Iraunkorraren erabakiak betetzea, eta Administrazio Kontseiluari helaraztea dagozkion proposamenak, baita eskatzen zaizkion txosten, azterlan eta analisiak ere.

b) Agentziaren jarduerak zuzendu, antolatu, kudeatu eta ikuskatzea, Administrazio Kontseiluaren jarraibideen arabera.

c) Agentziaren jarduera-programaren eta zerbitzukatalogoaren proposamena prestatzea, eta Administrazio Kontseiluari aurkeztea, horiek onar ditzan, hala badagokio.

d) Lanpostu-zerrendaren proposamena prestatzea, eta Agentziako berezko langileei eta Agentziari atxikitakoei buruzko kontratazio-, zuzendaritza-, kudeaketa- eta gainbegiratze-eginkizunak betetzea.

e) Urteko aurrekontuaren eta horren aldaketen aurreproiektua prestatu eta Administrazio Kontseiluari helaraztea, horiek aztertu eta, hala badagokio, onar ditzan.

f) Agentziaren kudeaketa ekonomikoa zuzentzea, onartutako aurrekontuaren eta hori betetzeko oinarrien arabera.

g) Agentziaren ondarea administratzea, Administrazio Kontseiluaren jarraibideen arabera, eta Kontseiluak gai horri buruz ematen dizkion eskuordetzen barruan. Agentziaren instalazioak eta ekipamendua zaintzeaz eta mantentzeaz arduratzea.

h) Kontratazio-organo gisa dagozkion eskumenak erabiltzea, Administrazio Kontseiluak ezarritako mugen barruan. Estatutuok eta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak aipatzen dituzten kontratuak eta lankidetza-hitzarmenak izenpetzea, Agentziaren izenean.

i) Agentziaren legezko ordezkaria izatea eta, horren indarrez, Agentziari betebehar edo erantzukizun ekonomikoak ezarri dizkioten epaiak eta ebazpenak betearaztea.

j) Lan-metodoen hobekuntzaz eta kalitateaz arduratzea, baita berrikuntza teknologikoak sartzeaz ere.

k) Administrazio Kontseiluari eta horren barruan eratutako batzordeei informazioa ematea, haien eginkizunak egoki betetzeko behar den guztian, eta Agentziaren jardun onerako egoki iritzitako proposamenak egitea.

sor o Profesora Pleno o similar en el ámbito internacional. Deberá contar con una experiencia acreditada de, al menos, dieciocho años en actividad investigadora, de evaluación o de gestión.

3.– Corresponden al Director o Directora las siguientes funciones:

a) Ejecutar los acuerdos del Consejo de Administración y de su Comisión Permanente y elevar al mismo las propuestas que le correspondan, así como los informes, estudios y análisis que le sean requeridos.

b) Dirigir, organizar, gestionar e inspeccionar las actividades de la Agencia, de acuerdo con las directrices del Consejo de Administración.

c) Elaborar la propuesta del programa de actividades y del catálogo de servicios de la Agencia y presentarlos al Consejo de Administración para su aprobación, si procede.

d) Elaborar la propuesta de relación de puestos de trabajo y ejercer las funciones de contratación, dirección, gestión y supervisión del personal propio y adscrito de la Agencia.

e) Elaborar y elevar el anteproyecto de presupuesto anual y sus modificaciones, a los efectos de su examen y, si procede, su aprobación por el Consejo de Administración.

f) Dirigir la gestión económica de la Agencia conforme al presupuesto aprobado y las bases de ejecución.

g) Administrar el patrimonio de la Agencia de acuerdo con las directrices del Consejo de Administración y en el marco de las delegaciones que en esta materia le sean efectuadas por dicho Consejo de Administración. Velar por la conservación y el mantenimiento de las instalaciones y el equipamiento de la Agencia.

h) Ejercer las competencias propias como órgano de contratación, con los límites marcados por el Consejo de Administración. Suscribir, en nombre de la Agencia, los contratos y convenios de colaboración a los que hacen mención estos Estatutos y la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

i) Ejercer la representación legal de la Agencia y, en su virtud, hacer ejecutar las sentencias y resoluciones que imponen obligaciones o responsabilidades económicas a la Agencia.

j) Velar por la mejora y la calidad de los métodos de trabajo y por la introducción de las innovaciones tecnológicas.

k) Informar al Consejo de Administración y a las comisiones constituidas en su seno de todo lo necesario para el adecuado ejercicio de sus funciones y formular las propuestas que considere adecuadas para el buen funcionamiento de la Agencia.

l) Adituen Batzordeak proposatuta, Ebaluazio Batzordeetako kideak izendatu eta kargutik kentzea.

m) Programa-kontratuaren aurreproiektua, horren aldaketak eta eranskinak prestatzea, bai eta hitzarmen osagarriak ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin.

n) Estatutuok eta indarrean dauden gainerako arauek emandako beste edozein eginkizun, baita Administrazio Kontseiluak berariaz agindu edo eskuordetuak ere, estatutuon 10. artikuluko a), b), c), d), e), f), g), ñ), o), r) eta s) idatz-zatiek Administrazio Kontseiluari emandakoak salbu.

4.– Agentziako zuzendari-kargua ordaindua izango da, eta dedikazio esklusiboa eskatuko du, Agentziaren baitako zereginei dagokienez. Hala, bada, 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzekoa, aplikatuko zaio.

***14. artikulua.***– Agentziako zuzendariaren ordezkotza.

Zuzendariaren kargua hutsik, edo zuzendaria kanpoan edo gaixo dagoenean, kontseiluburuak edo horrek eskuordetuak hartuko ditu bere gain zuzendariaren eginkizun guztiak.

2. ATALA
ZIENTZIA- ETA TEKNIKA-ORGANOAK

***15. artikulua.***– Adituen Batzordea.

1.– Adituen Batzordea da Agentziaren zientzia- eta teknika-izaerako kide anitzeko organoa.

2.– Hona Adituen Batzordearen osaera:

a) Agentziako zuzendaria, Batzordeko buru izango dena.

b) Administrazio Kontseiluak izendatutako hamabost pertsona, Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuan edo nazioartean unibertsitate- edo ikerketa-komunitateko kide direnak eta ebaluazio-lanetan eskarmentua dutenak, edo hemezortzi urteko eskarmentu egiaztatua dutenak unibertsitate-ikerkuntza edo -kudeaketan; mota bateko eta besteko ordezkari-kopurua berdintsua izateko ahaleginak egingo dira. Batzorde hau osatzeko emakume eta gizonezkoen kopurua berdintsua izatea sustatuko da; zehazki, sexu bakoitzeko ordezkariak guztizkoaren % 40 izango dira, gutxienez.

3.– Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako errektoreordeek ezin dute Adituen Batzordeko kide izan, Batzordearen jardunaren independentzia bermatzeko.

l) Nombrar y destituir a los integrantes de los comités de evaluación a propuesta de la Comisión de Expertos.

m) Elaborar y elevar al Consejo de Administración el anteproyecto de contrato-programa, modificaciones, adendas y convenios complementarios con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

n) Cualesquiera otras funciones que le atribuyan estos Estatutos y el resto de la normativa vigente, así como las que le sean expresamente encargadas o delegadas por el Consejo de Administración, salvo las atribuidas a éste en los apartados a), b), c), d), e), f), g), ñ), o), r) y s) del artículo 10 de estos Estatutos.

4.– El cargo de Director o Directora de la Agencia será remunerado y requerirá una dedicación exclusiva en sus tareas en el seno de la Agencia, siéndole de aplicación lo establecido en el Decreto 130/1999, de 23 de febrero, por el que se regula el estatuto personal de los directivos de los Entes Públicos de Derecho Privado y de las Sociedades Públicas.

***Artículo 14.***– Suplencia de la Directora o Director de la Agencia.

En caso de ausencia, vacante o enfermedad de la Directora o Director, el Presidente o Presidenta o persona en quien delegue asumirá, asimismo, todas sus funciones.

SECCIÓN 2.ª
ÓRGANOS CIENTÍFICO-TÉCNICOS

***Artículo 15.***– La Comisión de Expertos.

1.– La Comisión de Expertos es el órgano colegiado de carácter científico-técnico de la Agencia.

2.– La Comisión de Expertos tiene la siguiente composición:

a) El Director o Directora de la Agencia que ocupará su presidencia.

b) Quince miembros de la comunidad universitaria o investigadora vasca, española o internacional nombrados por el Consejo de Administración con experiencia en evaluación o experiencia acreditada de dieciocho años en actividad investigadora o gestión universitaria procurándose una representación equilibrada de cada uno de los mencionados ámbitos. En la composición de esta Comisión se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres que garantice un mínimo de presencia del 40% de cada sexo.

3.– La condición de miembro de la Comisión de Expertos es incompatible con el desempeño del cargo de vicerrector o vicerrectora en las universidades del sistema universitario vasco para garantizar la independencia de su actuación.

4.– Adituen Batzordeko kideak hiru urterako izendatuko dira, gehienez ere. Kideen erdiek beren kargua berrituko dute, bi urtean behin. Hauek izango dira Adituen Batzordeko kide izateari uzteko arrazoiak:

a) Arduraldia amaitzea Arrazoi hori dela eta Adituen Batzordeko kide izateari uzten diotenean, kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute kargu berriak hautatzen direnera arte.

b) Uko egitea.

c) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.

d) Egoera hauetakoren batean:

1) Unibertsitate-kudeaketako kargu bateraezinen bat onartzea, 15.3 artikuluan jasotakoaren arabera.

2) Batzordearen bileretara arrazoirik gabe huts egitea, hiru aldiz jarraian, edo bost aldiz guztira.

3) Estatutu hauek eta indarrean dauden legeek ezarritako batzordekidearen eginkizunak eta betebeharrak ez betetzea modu larrian, nahita eta behin baino gehiagotan. Horrelakoetan, Administrazio Kontseiluak kargugabetzea adostuko du.

5.– Adituen Batzordeak, bere jarduerak objektiboak eta inpartzialak izango direla bermatzeko, Agentziak onartutako kode etikoa izango du arau.

6.– Adituen Batzordeak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Agentziako zuzendaria eta Administrazio Kontseilua aholkatzea plan estrategikoa eta programa-kontratua prestatzeko orduan.

b) Ebaluazio-adierazle edo -irizpideak prestatu, eta Administrazio Kontseiluari helaraztea, hark onar ditzan. Irizpide horiek Agentziaren ebazpen bidez argitaratuko dira. Gainera, objektiboak eta agerikoak izango dira, eta nazioarteko komunitate zientifikoak hartutakoekin homologatu ahalko dira.

c) Ebaluazio-protokoloak prestatu eta onartzea, Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez argitara daitezen.

d) Ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-eginkizunez arduratzen diren Ebaluazio Batzordeetako kideen izendapena eta kargutik kentzea proposatzea zuzendariari, Administrazio Kontseiluak hala onartu ondoren.

e) Ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-prozesuak inpartzialak eta objektiboak izan daitezen zaintzea.

f) Zuzendariari eta Administrazio Kontseiluari aholkua ematea, aztertzeko ematen dizkioten gai guztietan.

4.– Los miembros de la Comisión de Expertos son nombrados por un periodo máximo de tres años. La renovación se realizará en un cincuenta por ciento cada dos años. Perderán su condición de tales por alguna de las siguientes causas:

a) Terminación de su mandato. Cuando se produzca la pérdida de la condición de miembro de la Comisión de Expertos por la causa prevista en este apartado los miembros continuarán en funciones hasta que se proceda a la elección de los nuevos cargos.

b) Renuncia.

c) Incapacidad permanente o fallecimiento.

d) Concurrencia de alguna de las siguientes situaciones:

1) Incorporación a un cargo de gestión universitaria incompatible de acuerdo con lo establecido en el artículo 15.3.

2) Ausencia injustificada a tres reuniones consecutivas o cinco alternas de la Comisión.

3) Incumplimiento grave, reiterado y deliberado de las funciones y deberes de miembro de la Comisión emanados de los presentes Estatutos, de las leyes y normativas vigentes. En este caso el Consejo de Administración acordará la destitución.

5.– La Comisión de Expertos, para garantizar la objetividad e imparcialidad de sus actuaciones se ajustará a lo establecido en el código ético aprobado por la Agencia.

6.– La Comisión de Expertos ejercerá las siguientes funciones:

a) Asesorar al Director o Directora de la Agencia y al Consejo de Administración en la elaboración del plan estratégico y del contrato-programa.

b) Elaborar y enviar para su aprobación al Consejo de Administración los indicadores o criterios de evaluación, que se publicarán mediante resolución de la Agencia. Dichos criterios serán objetivos, públicos y homologables a los utilizados por la comunidad científica internacional.

c) Elaborar y aprobar los protocolos de evaluación para su publicación mediante resolución del Director o Directora de la Agencia.

d) Proponer al Director o la Directora el nombramiento y el cese de los miembros de los Comités de evaluación encargados de las funciones de evaluación, acreditación y certificación, previa aprobación del Consejo de Administración.

e) Velar por el mantenimiento de la imparcialidad y objetividad de los procesos de evaluación, acreditación y certificación.

f) Asesorar a la Directora o Director y al Consejo de Administración de cuantos asuntos se sometan a su consideración.

g) Administrazio Kontseiluak berariaz agindu edo eskuordetutako beste edozein eginkizun; orobat, estatutuok eta indarrean dauden gainerako arauek emandakoak.

7.– Agentziako zuzendari izango da Adituen Batzordearen bileretako burua, eta idazkaria izendatuko du Batzorde horretako kideen artetik. Bilera horiek balioz eratzeko, aipatutako karguez gainera, kideen erdia eta bat bertaratu beharko dira. Botoen gehiengoz onartuko dira Adituen Batzordearen akordioak, Ebaluazio Batzordeetako kideak izendatu eta kargutik kentzeko erabakietan salbu, horretarako Adituen Batzordeko kideen bi herenen aldeko botoa beharko baita.

***16. artikulua.***– Ebaluazio Batzordeak.

1.– Agentziak, bere eginkizunak betetzeko, zientzia-komunitatearen aholkularitza eskuratuko du, Ebaluazio Batzordeen bitartez. Ezagutza-arloen edo espezialitateen arabera sortuko dira Ebaluazio Batzorde horiek, edota garatu beharreko ebaluazio-prozesuaren berezitasunen arabera.

2.– Ebaluazio Batzordeek bete beharreko eginkizunaren arabera egoki iritzitako kide-kopurua izango dute. Kide horiek Agentziako zuzendariak izendatuko ditu, Adituen Batzordearen proposamenez, Espainiako edo nazioarteko eta euskal unibertsitate-sistemaz kanpoko zientzia-komunitateko irakasle doktoreen artean. Azken horiek hamabi urteko esperientzia egiaztatu beharko dute ikerkuntza-lanetan.

3.– Ebaluazio Batzordeetan ikasleek eta profesionalek parte hartu ahalko dute, Agentziaren ebaluatzaile-hautaketako kodean ezarritakoaren arabera, beti ere. Kode hori Administrazio Kontseiluak onartu beharko du.

4.– Ebaluazio Batzordeen osaeran gizon eta emakumeen kopurua berdintsua izatea sustatuko da; hala, bada, sexu bakoitzeko ordezkariak guztizkoaren % 40 izango dira, gutxienez.

5.– Ebaluazio Batzordeko kideak hiru urterako izendatuko dira, eta ezingo dira berriz aukeratu kargua utzi zutenetik hiru urte igaro arte.

6.– Ebaluazio Batzordeetako kideek batzordekide izateari utziko diote honako hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Arduraldia amaitzea.

b) Uko egitea.

g) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.

d) Izendatu zituen organoaren proposamenez kargutik kentzea. Honako egoera hauetan kenduko da kargutik Ebaluazio Batzordeetako kide bat:

g) Cualesquiera otras funciones que le sean expresamente encargadas o delegadas por el Consejo de Administración o que le atribuyan estos Estatutos y el resto de la normativa vigente.

7.– Las reuniones de la Comisión de Expertos estarán presididas por el Director o la Directora de la Agencia, quien designará un Secretario o Secretaria de entre sus miembros y quedarán válidamente constituidas cuando, además de los cargos mencionados, estén presentes la mitad más uno de sus componentes. Los acuerdos de la Comisión de Expertos se adoptarán por mayoría de votos, excepto el nombramiento y cese de los integrantes de los Comité s de evaluación que requerirá el voto favorable de los dos tercios de los miembros de la Comisión.

***Artículo 16.***– Los comités de evaluación.

1.– Para el ejercicio de sus funciones, la Agencia recabará el asesoramiento de la comunidad científica, a través de los comités de evaluación que se crearán por campos de conocimiento o especialidades o en función de las especificidades del proceso de evaluación a desarrollar.

2.– Cada comité de evaluación estará compuesto por el número de miembros que se consideren necesarios en función de la labor a realizar. Serán nombrados por el Director o la Directora de la Agencia, a propuesta de la Comisión de Expertos, entre doctores o doctoras de la comunidad científica española o internacional ajenos al sistema universitario vasco, con una experiencia investigadora acreditada positivamente mínima de doce años.

3.– Los comités de evaluación podrán contar con la participación de estudiantes y de profesionales de acuerdo con lo establecido en el Código de selección de evaluadores de la Agencia, que aprobará el Consejo de Administración.

4.– En la composición de los comités de evaluación se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres que garantice un mínimo de presencia del 40% de cada sexo.

5.– Las y los integrantes de los comités de evaluación serán nombrados por un periodo de tres años, sin posibilidad de ser nuevamente elegidos hasta transcurridos tres años desde su cese.

6.– Los miembros de los comités de evaluación, perderán su condición de tales por alguna de las siguientes causas:

a) Terminación de su mandato.

b) Renuncia.

c) Incapacidad permanente o fallecimiento.

d) Destitución a propuesta del órgano que los nombró. En este último supuesto se podrá realizar la destitución en las siguientes ocasiones:

1) Batzordearen bileretara arrazoirik gabe huts egitea, hiru aldiz jarraian, edo bost aldiz guztira. Ondorio bera izango du urtebetean egindako bileren erdietara ez joateak, huts-egitea arrazoitua izan arren.

2) Administrazio Kontseiluaren erabakiz, estatutuotatik eta indarrean dauden arauetatik eratorritako eginkizunak eta betebeharrak modu larrian, nahita eta behin baino gehiagotan ez betetzea.

7.– Ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-prozesuen emaitzak Agentziako zuzendarien ebazpenen bitartez formalizatuko dira, dagokion Ebaluazio Batzordeak txostena egin ondoren. Ebaluazio Batzordeek, erabaki horiek hartzeko, men egin beharko diete estatutuok Agentziaren Administrazio Kontseiluak erabakiak hartzeari dagokionez ezarritako arauei.

8.– Ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-prozesuei buruzko ebazpenak emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere. Epearen barruan ebazpenik iritsi ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 43. eta 44. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

9.– Erakunde-ebaluaziorako programetan eta titulazio-programetan Agentziaren ebazpena aldekoa ez bada, unibertsitateek erreklamazioa aurkeztu ahalko diote Agentziari. Erreklamazio hori Euskadiko Unibertsitate Kontseiluri igorriko zaio txostena egin dezan gauzatutako prozeduraren legezkotasunari buruz eta arbitrariotasuna egon den edo ez aztertzeko, izaera teknikoko gaietan edo balorazioetan sartu gabe, beti ere. Txosten hori Agentziari bidaliko zaio gero, jarritako erreklamazioari erantzuteko ebazpenaren txostenean sartzeko.

IV. KAPITULUA
LANGILEAK. EKONOMIA-, ONDARE-, LEGE- ETA LAN-ARAUBIDEA

***17. artikulua.***– Agentziako langileak.

1.– Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 79.4 artikuluaren arabera, Agentziako langileak bi eratakoak dira:

a) Berezko langileak, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak begiratuz lan-zuzenbidearen pean kontratatutakoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako langileak eta Espainiako unibertsitate publikoetako langileetatik berari atxikitzen zaizkionak.

1) Por la ausencia injustificada a tres reuniones consecutivas o cinco alternas del Comité. El mismo efecto surtirá la inasistencia a más de la mitad de las sesiones celebradas en un año aunque las ausencia fuera justificada.

2) Por acuerdo del Consejo de Administración por incumplimiento grave, reiterado y deliberado de sus funciones y de los deberes emanados de los presentes Estatutos, de las leyes y normativas vigentes.

7.– Los resultados de los procesos de evaluación, acreditación y certificación se formalizarán, una vez emitido el informe por el comité de evaluación que corresponda, a través de resoluciones del Director o la Directora de la Agencia. Para la toma de esas decisiones, los comités de evaluación se ajustarán a las normas que sobre adopción de acuerdos del Consejo de Administración de la Agencia establecen estos Estatutos.

8.– El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones sobre los procesos de evaluación, acreditación y certificación será de seis meses. La falta de resolución expresa en plazo se rige por lo previsto en los artículos 43 y 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

9.– Ante la emisión de resolución desfavorable de la Agencia, en los programas de evaluación institucional y de titulaciones, las Universidades podrán presentar reclamación ante la Agencia. Esta reclamación será remitida al Consejo Vasco de Universidades para la emisión de informe sobre la legalidad del procedimiento seguido y sobre la existencia o no de arbitrariedad, sin adentrarse en cuestiones de índole técnica o valorativa. Del citado informe se dará traslado a la Agencia para que sea tenido como parte integrante del expediente a los efectos del dictado de la correspondiente resolución que de respuesta a la reclamación interpuesta.

CAPÍTULO IV
PERSONAL, RÉGIMEN ECONÓMICO, PATRIMONIAL, JURÍDICO Y LABORAL

***Artículo 17.***– Personal de la Agencia.

1.– De acuerdo con el artículo 79.4 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, el personal de la Agencia está formado por:

a) Personal propio, contratado en régimen de Derecho laboral respetando los principios de igualdad, mérito y capacidad.

b) Personal de la Administración pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de las universidades públicas españolas que les sea adscrito.

2.– Agentziako langile guztiek, izaera edo jatorria edozein dutela, zuzendariarekiko mendetasun funtzionala izango dute.

3.– Araubide juridikoari dagokionez, langile horiek honako lege eta arau hauei lotuko zaizkie: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoak Lege hori garatzeko egingo dituenak, eta lan-legedian bildutako xedapenak.

***18. artikulua.***– Ondarearen araubidea.

Agentziari atxikitako ondasun eta eskubideen kudeaketari jarraipena egingo zaio, ondare-kontabilitatearen bitartez. Agentziak, era berean, beharrezko laguntza emango du, Ogasun Saileko organo eskudunak prestatuko duen inbentario orokorra egiteko.

Nolanahi ere, Agentziak bere ondasun eta eskubideen inbentarioa egin eta eguneratuta eduki behar du, izaera suntsikorra dutenen salbuespen bakarrarekin. Urtero egingo da inbentarioa, abenduaren 31 erreferentziatzat hartuta, eta administrazio-kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan, hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

***19. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

Agentziak honako baliabide hauek izango ditu, bere xedeak betetzeko:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan urtero zuzenduko zaizkion kredituak. Kreditu horiek urte anitzeko programa-kontratu baten bidez finkatuko dira.

b) Bere ondarearen, atxikita dituen ondasunen edota administratu eta ustiatzeko eman zaizkion ondasunen emaitzak eta errentak.

c) Jasotzea dagozkion zuzenbide publiko edo pribatuko diru-sarrerak, baita bere jardueren ondorioz sortutakoak ere.

d) Beste erakunde publiko edo organismo edo pertsona pribatu batzuek Agentziaren alde eman edo eskuratutako diru-laguntza, borondatezko ekarpen edo dohaintzak.

e) Eskatu dakiokeen beste edozein baliabide ekonomiko, arruntak zein apartekoak.

***20. artikulua.***– Programa-kontratua.

1.– Urte anitzeko programa-kontratuen bidez egituratuko dira Agentziak unibertsitateen ardura duen Eusko Jaurlaritzako Sailarekin dituen harremanak. Lau urteko iraupena izango dute.

2.– Hona hemen programa-kontratuaren xedea: Agentziaren helburu operatiboak erabakitzea dagokion eperako, zehazki, enkarguz edo bere kabuz gauzatu beharreko jarduerak eta zerbitzuak finkatzea, eta

2.– Todo el personal de la Agencia, cualquiera que sea su naturaleza u origen, estará bajo la dependencia funcional de la Directora o del Director.

3.– El régimen jurídico de este personal se circunscribirá a las previsiones que les sean de aplicación recogidas en la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, las normas que en su desarrollo dicte la Comunidad Autónoma del País Vasco, las normas sobre empleo público de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las determinaciones recogidas en la legislación laboral.

***Artículo 18.***– Régimen patrimonial.

La gestión de los bienes y derechos adscritos a la Agencia será objeto de seguimiento a través de su contabilidad patrimonial. Asimismo, la Agencia prestará la colaboración que requiera la confección del Inventario General llevado a cabo por el órgano competente del Departamento de Hacienda.

En cualquier caso, la Agencia tiene que elaborar y mantener actualizado el inventario de sus bienes y derechos con la única excepción de los de carácter fungible. El inventario se realizará anualmente con referencia al 31 de diciembre y se someterá a la aprobación del Consejo de Administración en el primer trimestre del ejercicio siguiente.

***Artículo 19.***– Recursos económicos.

Para el cumplimiento de sus fines, la Agencia dispondrá de los siguientes recursos:

a) Los créditos que anualmente se consignen a su favor en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se establecerán mediante un contrato-programa plurianual.

b) Los productos y las rentas de su patrimonio y de los bienes que tengan adscritos, o cuya administración y explotación tenga atribuida.

c) Los ingresos de derecho público o privado que le corresponda percibir y los que se produzcan como consecuencia de sus actividades.

d) Las subvenciones, aportaciones voluntarias o donaciones que concedan u otorguen a su favor otras entidades públicas y organismos o personas privadas.

e) Cualesquiera otros recursos económicos, ordinarios o extraordinarios que le puedan ser atribuidos.

***Artículo 20.***– Contrato-programa.

1.– Las relaciones de la Agencia con el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades se articulan para la mayoría de las actividades por medio de contratos-programa plurianuales. La duración de los mismos es de cuatro años.

2.– El objetivo del contrato-programa es establecer los objetivos operativos de la Agencia durante el periodo correspondiente; las actividades y servicios que ha de llevar a cabo por encargo o por iniciativa pro-

helburu bakoitzerako jarraipen-adierazleak ezartzea. Hori guztia, urte anitzeko epe baterako zehaztuta.

3.– Programa-kontratuaren helburuak dira:

a) Agentziaren eta unibertsitateen ardura duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren arteko harremanak egituratzea. Harreman hori bi alderdiek konpromisoak hartzean oinarritzen da, eta Agentziak aldian-aldian Eusko Jaurlaritzari kontuak ematean.

b) Adostasunez ezartzea Agentziaren helburu orokorrak zein diren euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea bermatze aldera; Agentziak bere eginkizunetan inolako mendekotasunik ez duela ziurtatu beharko da, beti ere.

c) Agentziari bere egitekoa betetzeko behar dituen baliabide guztiak ematea eta inolako mendekotasunik ez duela bermatzea, urte anitzeko finantziazioa jasotzen duela ziurtatuz.

4.– Programa-kontratuak epe osorako oinarrizko ekonomia- eta finantza-aurreikuspenak jaso beharko ditu, urte anitzeko eperako zehaztuta, Agentziaren finantza-askitasuna bermatzeko. Aurreikuspen horiek moldagarriak izango dira, helburuak aldatzea edo aparteko ekintzak direla medio.

5.– Programa-kontratuak Jarraipen Batzorde bat eratu behar du proposatutako helburuak nola betetzen diren aztertzeko eta beharrezko iritzitako aldaketak proposatzeko, ezarritako helburuak indarrean dauden bitartean edo, etorkizunera begira, indarrean dagoen programa-kontratua bukatzen denerako.

***21. artikulua.***– Aurrekontu-, finantza- eta kontabilitate-araubidea.

1.– Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak xedatu duenaren arabera, Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoei dagozkien arauak aplikatuko zaizkio Agentziari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei buruz autonomia-erkidegoak duen legeriaren arabera.

2.– Agentziak bere ekonomia- eta finantza-informazioa eramango du, eta kontabilitate-lan orokorreko irizpideen arabera prestatuko du. Ekonomia- eta finantza-informazio hori, halaber, honako honi egokituko zaio: Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol- eta kontabilitate-arauek Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoei buruz ezarritakoari.

***22. artikulua.***– Kontratazioaren araubidea.

1.– Indarrean dauden legeetan dago Agentziaren eginkizunak betetzeko behar diren ondasun eta zerbitzuak kontratatu eta eskuratzeko araubide orokorra, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumenak gauzatzean eman ditzakeen ezein arau-xedapenetan ere.

2.– Agentziako zuzendaria izango da Agentziaren kontratazio-organoa.

pia, y los indicadores de seguimiento para cada objetivo, detallados de modo plurianual.

3.– Las finalidades del contrato-programa son:

a) Articular las relaciones entre la Agencia y el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades. Esta relación se basa en la adquisición de compromisos por ambas partes y en la rendición periódica de cuentas al Gobierno Vasco por parte de la Agencia.

b) Establecer de mutuo acuerdo los objetivos generales de la Agencia en el sentido de garantizar la calidad del Sistema Universitario vasco y todo ello asegurando la independencia de la Agencia en el ejercicio de sus funciones.

c) Dotar a la Agencia de los medios necesarios para desarrollar su labor y garantizar su independencia asegurando su financiación plurianual.

4.– El contrato-programa debe incluir las previsiones económicas y financieras básicas de todo el periodo, especificadas de modo plurianual, a fin de garantizar la suficiencia financiera de la Agencia. Estas previsiones podrán ser modificadas por variaciones en los objetivos o actuaciones extraordinarias.

5.– El contrato-programa ha de establecer una comisión de seguimiento para evaluar el cumplimiento de los objetivos propuestos y proponer las modificaciones que se consideren precisas durante su vigencia y de cara al futuro contrato programa una vez concluya el vigente.

***Artículo 21.***– Régimen presupuestario, financiero y contable.

1.– De acuerdo con lo dispuesto en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, son aplicables a la Agencia las normas correspondientes a los Entes Públicos de Derecho Privado, de conformidad con la legislación de la Comunidad Autónoma en las materias propias de la Hacienda General del País Vasco.

2.– La Agencia llevará su propia información económico-financiera, elaborada de acuerdo a los criterios del Plan General de Contabilidad. Esta información económico-financiera se ajustará asimismo a lo que la normativa de la Comunidad Autónoma Vasca en materia de control y contabilidad establezca para los Entes Públicos de Derecho Privado.

***Artículo 22.***– Régimen de la contratación.

1.– El régimen general de la contratación y adquisición de bienes y servicios necesarios para el ejercicio de las funciones de la Agencia será el establecido en la legislación vigente, así como en las disposiciones normativas que en el ejercicio de sus competencias dicte la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El Director o la Directora de la Agencia será el órgano de contratación de la Agencia.

***23. artikulua.***– Araubide juridikoa.

1.– Honako arau hauek hartzen ditu Agentziari aplikatzen zaion araubide juridikoak: Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, estatutuok eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatzen zaizkien lege eta izaera orokorreko xedapenek ezarritakoak.

2.– Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak ematen dizkion administrazio-ahalak erabiliko ditu Agentziak; baita, hala bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ematen dizkionak ere.

3.– Agentziako organoek beren administrazio ahalak erabiliz ematen dituzten egintzak administrazio-egintzak dira, eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Beraz, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke horien aurka, edo, besterik gabe, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eskumena duen jurisdikzioaren aurrean.

Agentzian ematen diren administrazio-egintzak interesatuei jakinaraziko zaizkie, eta hala badagokie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, horretarako legeria orokorrak xedatutakoaren arabera.

4.– Auzibide zibilera edo lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioak Agentziako zuzendariari bidaliko zaizkio, hark ebatzi beharko ditu eta.

5.– Agentziaren ondare-erantzukizunaren araubidea izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere X. tituluan eta hori garatzeko arauetan ezarritakoa. Agentziaren aurkako ondare-erantzukizunari buruzko erreklamaziorik egonez gero, Agentziako zuzendaria izango da horiek ebazteko eskumenduna.

6.– Agentziak lege-aholkularitza izango du bere egintza guztien legezkotasuna begiratzeko.

V. KAPITULUA
DATU-BABESA

***24. artikulua.***– Datuak babestea.

1.– Agentziak, bere eginkizunak betetzean, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedia errespetatu beharko du.

2.– Agentziak men egin beharko die datu-babesari dagokionez indarrean dauden legeek ezarritako baldintza eta betebeharrei, beren eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak diren datu-baseak eta fitxategiak sortu, mantendu, kudeatu, aldatu eta ezabatzeko orduan, baldin eta horiek datu pertsonalez osatzen badira.

***Artículo 23.***– Régimen jurídico.

1.– El régimen jurídico aplicable a la Agencia comprende las normas que establece la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, los presentes Estatutos y cuantas Leyes y Disposiciones de carácter general resulten aplicables a los Entes Públicos de Derecho Privado de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– La Agencia ejercerá las potestades administrativas que le atribuye directamente la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, y las que le atribuya, en su caso, la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

3.– Los actos dictados por los órganos de la Agencia en el ejercicio de sus potestades administrativas tienen la consideración de actos administrativos, poniendo fin a la vía administrativa y contra los que cabe interponer con carácter potestativo recurso de reposición o bien interponer, directamente, un recurso contencioso-administrativo ante la Jurisdicción competente.

Los actos administrativos que se dicten en la Agencia será objeto de notificación a los interesados y de publicación, en su caso, en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme determine la legislación general al efecto.

4.– Las reclamaciones previas a las vías jurisdiccionales civil y laboral se dirigirán al Director o Directora de la Agencia, a quien corresponderá resolverlas.

5.– El régimen de responsabilidad patrimonial de la Agencia será el establecido en el Título X de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en la normativa de desarrollo de la misma. El Director o Directora de la Agencia será el órgano competente para la resolución de las reclamaciones de responsabilidad patrimonial dirigidas contra la misma.

6.– La Agencia contará con asesoramiento jurídico que velará por la legalidad de todos sus actos.

CAPÍTULO V
PROTECCIÓN DE DATOS

***Artículo 24.***– Protección de datos.

1.– La Agencia, en el ejercicio de sus funciones, queda sometida a la normativa vigente sobre protección de datos de carácter personal.

2.– La Agencia para la creación, el mantenimiento, la gestión y la modificación o supresión de ficheros y bases de datos que sean necesarios para el desarrollo de sus funciones y que contengan datos de carácter personal, debe actuar de conformidad con los requisitos y las obligaciones que establece la normativa vigente en esta materia.

## VI. KAPITULUA
## ESTATUTUAK ALDATZEA ETA AGENTZIA AZKENTZEA

***25. artikulua.***– Estatutuak aldatzea.

Agentziaren Administrazio Kontseiluak egoki iritzitako estatutu-aldaketak onetsi ahal izango ditu, eragiten dioten lege-aldaketei egokitu edota Agentziaren funtzionamendua hobetzeko. Estatutuak aldatzeko, kontseilukideen bi herenek akordioa adierazi eta, unibertsitateen ardura duen Eusko Jaurlaritzako Saileko pertsona titularraren eskariz, Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharko zaio, azken horrek onar dezan.

***26. artikulua.***– Azkentzea.

Legez ezarritakoaren arabera egingo dira Agentziaren azkentzea eta horri dagokion likidazio-prozesua.

## CAPÍTULO VI
## MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS Y EXTINCIÓN DE LA AGENCIA

***Artículo 25***.– Modificación de los Estatutos.

El Consejo de Administración de la Agencia podrá aprobar cuantas modificaciones de estos Estatutos considere necesarias para adaptarse a los cambios legislativos que la afecten o para mejorar el funcionamiento de la misma. La modificación de los Estatutos requerirá el acuerdo expreso de las dos terceras partes de los miembros del Consejo y su elevación a la aprobación del Consejo de Gobierno a propuesta de la persona titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades.

***Artículo 26.***– Extinción.

La extinción de la Agencia así como el oportuno proceso de liquidación, se hará en los términos legalmente establecidos.